

Ingeniaritzako ikasleek ibilgailu elektrikoa eraiki dute

2016/06/17

Orona Ideo campusea ari diren Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko 1. mailako ikasleek ibilgailu elektrikoentzako haririk gabeko birkarga sistema diseinatu dute. "Elektrolindegia" honen diseinu eta gauzapena Energiaren Ingeniaritza eta Ekoteknologia Industrietako Ingeniaritza Graduetako ikasleen seihilabeteko amaierako proiektua izan da. Seihilabetekoan zehar ikasitako kontzeptu eta ezagutzak beraien etorkizuneko antzeko lan esparruan aplikatu ahal izan dituzte ikasleek proiektu honekin.

Haririk gabeko birkarga sistema duen ibilgailu elektrikoa eraiki, hondartzan edo birziklatze-planta batean hondakin metalikoen gaikako bilketa egin dezakeena. Proiektu hau Mondragon Unibertsitateak dituen 1. mailako ingeniaritzako ikasleek burutu dute, Energiaren Ingeniaritza eta Ekoteknologia Industrietako Ingeniaritza Graduetako ikasleek, hain zuzen.

Hiru astez, bost ikaslez osatutako taldeek -8 talde dira- ibilgailu hauek gauzatu dituzte. Jostailuzko kotxe elektriko batetik abiatuko, etorkizuneko ingeniari hauek beharrezkoak ziren aldaketak egin behar izan dituzte, irakasle taldeak jarritako aurrebaldintzak betetzeko: kotxearen pilak ordezkatu behar izan dituzte, birkarga azkarragoa ahalbidetzen zuten superkondentsadoreengatik. Gainera, haririk gabeko birkarga sistema diseinatu behar izan dute, hortzetako eskuila elektrikoaren modukoa, elektromagnetismoaren printzipioetan oinarritua. Azkenik, diseinuari hondakin metalikoak biltzen dituen elektroiman bat gehitu diote.

Gaur, klaseko azken egunean, proiektuan parte hartu duten zortzi taldeek beraien prototipoak erakutsiko dituzte Oronan, beraien diseinuen bideragarritasuna frogatzeko.

Mondragon Unibertsitatearen hezkuntza ereduan, seihilabeteko amaiera bakoitzean egiten diren proiektuak ikasketen ardatz nagusi dira. Mondragon Unibertsitatean ingeniaritza esparruan proiektuen bitarteko egindako ikasketan aitzindariak da eta Orona Ideo campus berrian iaztik eskaintzen ditugun bi gradu berrietan Arrasaten irakasten dituzten graduen eredu arrakastatsu bera jarraitzen du.

